

## 1.1. Aitzinsolasa

*Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA) aitzina doa urratsez urrats, egitasmoa osatzen duten hamabi liburukietarik seigarren hau argitaratzearekin. Liburuki gehienek edukia ez da beregaina, monografikoa, ez da gai esparru bati zehazki lotua, are gutxiago inkestaren parterik handiena hartzen duen lexikoaren alorrean. Ahaleginez liburuki barruko gaiak hurbilak izan daitezten saiatu gara, baina neurriaren irizpidea ere hor da: galdetegi osoaren erantzunak hamabi liburukitan banatu behar ziren.

Badira liburuki batzuk, hala ere, beregainagoak direnak berez: aurrekoa, bostgarrena, izen morfologiari eskainia zen, eta seigarren hau aditz morfologiara zuzendua. Liburuki bion edukia gramatikaren alorrekoa da, 596 galdera guztira, zeintzuetatik 336 izen edo izenkien ingurukoak baitira eta 259 aditzarenekoak.

Aditzaren forma jokatuak dira azterkizun. Baina ez dira era jokatu onartzen duten aditz guztiak; bai, ordea, maiztasunik gehienekoak. Ez dituzu hemen aditz baten paradigma osoko adizkiak idoroko, atlas baten helburuez haratago lioake hori. Lexikoan gertatzen den bezala, morfologian ere, aditzarenean kasu honetan, eredurik esanguratsuenak bilatu dira. Hizkuntza atlas bati dagokionez, esparru mugatuan eta era hautatuan bilatu dira emaitzak, baina emaitzok esanguratsuak eta adierazgarriak dira hizkuntzaren aldiune jakin batean, erre-presentatiboak dira, guztiak barru ez izan arren.

Aditz nagusienak, laguntzaile direnak, dira batez ere aztergai.

*Izan* aditzaren kasuan, denboraren aldetik, oraina: *naiz/nas/niz*, iragana: *nintzen/nintzan* eta alegiazko baldintza: *banintz/baneintze*. Pertsona bakarrekoa denean, singular eta pluraleko hirurak. Laguntzaile gisa, orainean: (*joango/joanen*) *da*, iraganean: (*joango/joanen*) *zen/zan*, alegiazkoan: (*joango/joanen*) *litzateke/litzate/litzake/leiteke*.

\**Edin* aditzaren kasuan, orainekoak, 3. perts. sing. eta pl., *dadin, daitezten*, iraganeko-alegiazkoak, sing. *zedin/ledin, zitezen/litezen*, baldintzazkoa: *baledi/balitz/baleite*, ahalerazkoak: *daiteke /-tzen ahal da, liteke* eta *zitekeen/eitekean/-tzen ahal zen*, eta azkenik aginterazkoa: *hadi*.

*Izan* laguntzailearen nor-nori bi pertsonako adizki ohikoenak: orainekoetan, batetik, *zait/jat, zaik/jak//zain/jana, zaiol/jako/zako, zaigu/jaku/zaiku, zaizue/jatzue* eta *zaie/jake/zaiote* ereduak eta, bestetik, nor-zer pluraldunak: *zaizkio/jakoz/zaizko, zaizkie/jakez/zaitze*. Eta iraganekoetan, aurrekoetan bezala, *zitaidan/jatan/zeitan, zitagun/jakun/zitzaikun* eta nori-ren beste pertsona guztietakoak, eta nor-zer pluraldunak: *zitzaizkion/jakozan/ zeitzon* ereduak. Alegiazko nor-nori egiturakoak barne: *balitzaio/balitzako* erakoak. \**Edin* laguntzailearen bi pertsonakoetan, *dakion* erakoak.

\**Edun* aditzaren bi pertsonako adizkiei dagokionez, orainekoetan *dut/det/dot* lehenen dela, pertsona guztiak: *dun, duk, du, dugu, duzu, duzue, dute*. Objektu pluraldunetan: *ditu, dituzte* ereduak. Ondoren, nor beste pertsona bat dutenak: *nau, nauzu, naute, gaitu*. Iraganekoetan, nor 3. pertsona dutenak, *nuen ... zuten* segida guztia, ondoren objektu pluraldunak direla: *zituen*. Berdin nor beste pertsona bat dutenak, hala nola: *ninduzun, ninduen, gintuen/ginduzan*. Alegiazkoetan, objektu singulardunak: *balu* eta *balute/balebe*, eta pluraldunak: *balitu*. Gertakizuneko *duke* eta *zukeen*, ekialdean erabiliak, baina erdi eta sartaldean aditz perifrastikoez ordezkatuak direnak. Alegiazko *lituke/leukez*.

\**Ezan* aditz aoristoaren orainekoetan, nork 1-3. pertsonetakoak *dezan/daidan* eta *dezan/daian*, objektu pluraleko *ditzan/ daizan* barne. Iragan-alegizkoetakoak, *nezan/neian* eta *lezan/eian/lezan* eta objektu pluraleko *zitzan/eizan/litzan*. Alegiazko baldintzan, *baleza/balei* eta euron ordezkak. Eta ahalerazko ondorioan, *lezake/leike* eta ordezkak. Hauen iraganekoa, *zezakeen/eikean*. Aginteerakoak, *ezazu/eizu* eta objektu pluralduna, *itzazu/eizuz*.

\**Edun* aditzaren hiru pertsonakoetan, orainean: nork 1. pertsonako *diot/deutsat/daukot*, 3. pertsonako *dio/deutso/dako* eta objektu pluraldunak, *dizkio/deutsoz/deitzo* eta gainerako pertsonetakoak. Ondoren nori 1. edo 2. pertsonari dagozkien eredu batzuk, *hi* barne. Ildo horretan datoz ondorik iraganekoak, alegiazkoak eta aginteerakoak, beti ere maiztasunaren araberrako era hautatuan.

Aditz trinkoen saila laburragoa da. Nor pertsona bakarrekoetan, *joan, egon, etorri* eta *ibili*. Eta nork ergatibodunetan, *eduki, ekarri, eraman* eta *jakin*. Heda-

tuenak eta ezagunenak mintzairan.

Aditz alokutiboei eta zenbait laguntzaile bereziri, hala nola *\*iro* ekialdekoari, arreta berezia jarri zaie.

Aditz morfologiaren alorreko emaitza hauek ondoren hainbat ikerketa egiteko bidea eskaintzen dute. Didaktikari aldetik, besteak beste. Atlasean ageri diren adizki askok ez dute ez maiztasunez ez hedaduraz zerikusi handirik irakaskuntzan erabiltzen diren aditz paradigma ugari eta beteekin. Mintzairan askoz hutsune gehiago dira gramatika bidez ikasten ditugun aditz paradigmekin baino. Eta adizki asko ez dira mintzairan horren maiz erabiliak, idatziz irakatsi nahi zaigunaren neurrian behintzat. Adibide garbia dugu *natzaio* adizkian, hainbat lekutan *naiz*, *dio*, *deutset* ereduak destokitua gertatu dena. Didaktika zentzuzko baterako gogoan izan beharreko emaitzak, nolana ere.

Tradizio idatziarekin konparazioak egitera gonbidatzen gaituzte liburukiko emaitza batzuek. Izan ere, tradizio idatziko aditz morfologiak, dialektoetan erabili izan denak ere, egungo hizkeretan entzuten denarekin baditu kidetasunak puntu batzuetan, baina diferentzia garbiak ere bai beste anitzetan. Euskara batua eta dialekto tradizionalak morfologiaz bat ez diren bezala, dialekto literarioak eta hizkera mintzatuak ere maiz aski urrundurik ageri direla antzeman daiteke.

Hala, *ginen* adizki arautuarekin batera, *ginan* ageri zaigu erdialdean, gipuzkera literarioaren ildotik. Sartaldeko era banatuagoen artean, *ginien* erak tradizio zaharreko *ginean* adizkiak lotzen gaitu, Nafarroaren ekialdeko *gine* erak goi nafarrera hegoaldeko ereduarekin kidetzen gaituen antzera. Beste zenbait era, aldiz, tradizioetatik hastanduago ageri dira, hala nola *gintzen*, *gintzezan* eta batez ere *garien*. Tradizioaren eta berrikuntzen arteko tirabira higikorra, bateratasunaren eta aniztasunaren arteko dialektika.

Alegiazko baldintzako *balitz* adizkiarekin lehian sortu, garatu eta hedatu diren *ba-* + *-ke* ereduak kutsapenak, *balitzake* erakoak, edo iraganako *bazen* era, edo *\*edin* erroaz eraikia den *baleiteke* era, aski erakusgarri on dira, tradizio literarioaren bateratasunaren ondoan nolako dibertsitatea garatu den hizkera

bizietan ohartzeko.

Aoristoko laguntzaileen artean ere nahaste edo kutsapen joera antzematen da zenbait hizkeratan. Hala *dadin* ereduaren ordez zenbait lekutan *daien*, *daie-la* eta antzekoak hedatu direla. Edota iraganeko *zedin* ereduak nola ezabatu diren sartalderik gehiengan, oraineko *daiten* erakoak neutralizazioz.

Bi pertsonako (hura haiei) *zaie/jake* eredu arautukoaren aldaerak nola hedatua- go diren besteak baino: *zaiote*, *zaiue*, *zate*, *zakote*, *jakie*, *jakue*.

Aditz trinkoen erabilera-eremu mugatua ere emaitzetan da ezagun. Hala, *etorri* aditzaren jokoak, ia erdialde eta sartaldera mugatua, Iparralde eta Nafarroako eremuetan *heldu* aditzak lekua jaten diola.

Seigarren liburuki honek galdetegiko 90010-93870 zenbaki bitarteko kontzeptuen erantzunak biltzen ditu, 259 guztira. Ohi bezala, mapa koloreztatuan jasotzen dira lehenik superlema zerrenda mugatu batera ekarri diren erantzunak. Eta erantzunik jaso ez den eremuak zuriz datoz. Maparen azpian, ezker, galderak zein izan diren, nola egin diren eta jasotako erantzunen berezitasunak jaso dira. Eta eskuin, zenbait herritako erantzun ohargarriak ipini dira, tokiko hizkeraz. Hurrengo orrian herriz herri jaso diren emaitzen erantzutegia dator.

Amaitzeko, EHHA egitasmo honen sustatzaile eta lehen zuzendari akademikoa izan den Jean Haritschelhar jaunari aipamen eta ohore. Hark ez baitu izan seigarren liburuki hau argitaraturik ikusteko zoria, aurreko liburukiak ikusteko izan zuen bezala. Bihoakio egitasmoko kide guztion izenean gure esker ona eta oroimen gozoa.

Atlasgintzan eta berariak liburuki honen prestakuntzan buru-belarri murgildurik ibili garenon pozik handiena, ikertzaileen eta euskaltzaleen interesa bizia- gotzea litzateke, duda barik. Hala balitz, ondo eskertuak ginateteke.

Adolfo Arejita

EHHA-ren zuzendari akademikoa

2014-06-20